



Ezpalak

dantza tradizionalen nazioarteko jaialdia
2012ko maiatzak 25, 26 eta 27 BAIONA-IRUÑEA-EIBAR

<http://www.dantzan.com/blogak/ezpalak>

Zinta-dantzak, 2012ko ezpalak

Europa eta Ameriketan, ia herrialde guztietan dantzaten dira zinta-dantzak. Anglosaxoi munduak *maypole* izenarekin ezagutzen ditu, maiatzeko zuhaitza alegia: maiatzetik aurrera Euskal Herriko hainbat herritan, plazaren erdian ezartzen den arbola edo “donien atxa”-ren antzekoa. Zutabearen muturretik xingola koloretsuak lotu eta dantzariak haren inguruan dantzan eta zintak gurutzatzen, lotzen, korapilatzen hasten direnekoa.

Tarragona (Katalunia), Tenerife (Kanariar Uharteak), Araba, Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiko zinta-dantzak ikusteko aukera izango dugu 2012 Ezpalak jaialdian.

Bi jaialditatik hiru jaialditara pasatzen da aurten Ezpalak. Iruñean eta Eibarren ez ezik, Baionan ere izango baita. Hiru egun (maiatzak 25, 26 eta 27), hiru herri (Baiona, Iruñea eta Eibar), hiru herrialde (Lapurdi, Nafarroa eta Gipuzkoa) eta zortzi dantza talde. Asmatuko ahal dugu denon bideak zinta-makilaren inguruan txirikordatzen!

Duguna dantza taldea – Kezka dantza taldea – Iparraldeko Dantzarien Biltzarra



Ezpalak, zinta-dantzen nazioarteko jaialdia

2012ko maiatzaren 25tik 27ra Baionan, Iruñean eta Eibarren

Baiona. Maiatzak 25, ostirala

19.00tan *Les Maimorables* festibalaren baitan Ezpalak jaialdia Santa Gurutzeko auzoko Gaskoinen plazan:

- Oinak Arin dantza taldea (Beskoitze, Lapurdi)
- Ball de Gitanes (L'Arboç, Tarragona)
- Añate folklore taldea (La Victoria de Acentejo, Tenerife)
- Eraiki dantza taldea (Irun, Gipuzkoa)

(Euria bada, Santa Gurutzeko bertako Jean-Fontan kiroldegian)

Iruñea. Maiatzak 26, larunbata

17.30ean Kalejira alde zaharreko karriketan barna.

18.00etan Ezpalak zinta-dantzen nazioarteko jaialdia Burgoen Plazan:

- Duguna dantza taldea (Iruñea, Nafarroa)
- Ball de Gitanes (L'Arboç, Tarragona)
- Eltziegoko dantzariak (Eltziego, Araba)
- Añate folklore taldea (La Victoria de Acentejo, Tenerife)
- Cortes-eko paloteadoa (Cortes, Nafarroa)

Eibar. Maiatzak 27, igandea (47. Euskal Jaia)

12.00etan Euskal Jaiko kalejira Urkizutik Untzagara.

12.30etan Ezpalak zinta-dantzen nazioarteko jaialdia Untzaga Plazan:

- Kezka dantza taldea (Eibar, Gipuzkoa)
- Ball de Gitanes (L'Arboç, Tarragona)
- Eltziegoko dantzariak (Eltziego, Araba)
- Añate folklore taldea (La Victoria de Acentejo, Tenerife)
- Cortes-eko paloteadoa (Cortes, Nafarroa)

17.00etan Erromeria Patxi eta Konpania taldearekin.

Zinta-dantza, edo patua irutearen dantza

Juan Antonio Urbeltz


Zinta-dantza irute-lanaren eta, areago, patua bera irutearen alegoria litzateke. Esaterako, Afrikako *fulani* herrian halaxe omen diote: “*Iragana eta orainaldia ezagutzen badituzu, etorkizuna ere ezagutuko duzu. Izan ere, iruleak darabilen haria geroa duzu; ehundutako oihala oraina da; eta behin ehundutako eta tolestutakoa, berriz, iragana.*”

Dantzaren egitura honakoa da. Erdi-erdian kokatzen den makila luze batetik -lagun batek edo bi lagunen artean tinkatuko dutena lurrean- dantzan parte hartuko duten dantzari bezainbeste xingola eskegitzen dira. Dantzariok zortzi edo hamahiru izan ohi dira, makilaren inguruko disposizio borobilean, eta eskuineko eskuaz hartuko dute norbere zinta. Zinta zilborrestearen sinboloa da, eta dantzari bakoitzak, orain ezkerralde, orain eskuinalde, behin gaineratik eta behin azpitik -bizitzan bezalaxedenok garelak elkarrentzako traba eta osagarri aurkituko du. Parez pareko etenaldi eta geldidunak saihestuko ditu, eta dantzariak euren patua ehunduko dute. Trama osatu denean, zenit-era iritsi gara.

Gorenaldi honetatik talde osoak hasieran begiratu duen aurkako aldera begiratuko du. Lehen ehundutakoa desegiteko garaia da orain: kontrako gurutzamenduen bidetik, dantza sartalderaino iritsiko da; zenit-etik nadir-eraino. Dantza amai dadinean, dantzariak hasierako tokian izango dira, sinboloa osatu da, eta eskuek zinta -bizitzara lotzen gintuen zilborrestea- askatu ondoren, beste egoera bat zabaltzen zaigu...

Hala Gipuzkoan, nola Galizian, Valentzian eta Iberiar penintsulako beste leku batzuetan, zinta-makilaren buruan pare bat uso izkutatzen zituen gailu bat kokatu ohi zuten, eta dantza errematatzen zen momentuan, askatu egiten ziren usoak. Beste kasu batzuetan, ordea, Bizkaian esaterako, zinta-makila enpalatutako “mairu” distortsionatu baten panpin edo txotxongiloaz ornatu izan da.

Euskal Herrian zeremonia beste dantza-ziklo batzuetako azken pieza gisa eman izan da



zinta-dantza: halaxe da bai Bizkaiko ezpata-dantza zikloan, baita Gipuzkoako brokel-dantza zikloan ere.

Zinta-dantza edo *maypole*-a Grandviewn (Ameriketako Estatu Batuak) 1918. urtean.

Oinak Arin dantza taldea – Beskoitze (Lapurdi)

Oinak Arin taldea 1961ean sortu zen Lapurdiko Beskoitze herrian. Hasieratik 6 urtetik gorako haurrek dantza eta musika tradizionala ikasteko aukera dute bertan. 15 urtetik gora Lapurdiko inauteri-ohituretan parte hartzeko aukera dute. Izan ere, ohitura horiek Oinak Arin taldeak berak berreskuratu zituen Beskoitzen 1983an.

Bestela, taldeak Euskal Herriko zazpi probintzietako dantzak aurkezten ditu ikusgarri ezberdinetan, bai haurrekin, baita dantzari helduekin ere, eta lan sakona egiten du hala dantza eta musika teknikak lantzeko, nola kalitatezko jantziak ukaiteko. Euskal Herrian eta Frantzian ez ezik, jaialdi anitzetan Frantziako mugez gaindi, -Suitzan, Errumanian, Turkian...- ibili izan da.

Ball de Gitanes – L'Arboç (Tarragona)

Tarragonako L'Arboç herriko *ball de gitanes* Sant Juliá *esbart*-aren (hau da, dantza tradizional eta berriak lantzeko 1961ean sortu eta Sant Juliá izena daukan elkartearen) sail bat da; hain zuzen, guk zinta-dantza gisa izendatzen dugun dantzaren kide bat ematen duena.

L'Arboç-eko *ball de gitanes*-en aipamenik antzinakoena 1770ekoa da, eta ijito-emakume jantzitako gizakumeek egiten zuten zinta-dantza bat omen zen. Dantza aurrera eraman ahal izateko 11 pertsonaia behar dira, gutxienez: *estaquirot*, makilari eusten diona, alegia; buruzagia, taldea dantzarazten duena; lau ijito-emakume eta beste lau ijito-gizonezko, zinta bana hartuta; eta *galerons*-ak, ijito-andrazkoak, aurrez aurre, tentatzen saiatzen direnak.

Añate – La Victoria de Acentejo (Tenerife)

Zinta dantza, genero gisa -bideko dantza izenez ere ezaguna- landagune txiki batzuetan bakarrik gorde izan da, zenbait prozesio eta erromesaldiren sarrera gisa. Horietan, beraz, erlijio ofiziala superstizio paganoekin nahasten zen.

Zinta-makila edo *lantza* toki gehienetan mantendu izan denaren antzekoa da, eta zinten artean, beste kolore askotakoen artean, lau gorri eta zinta beltz bakarra txertatzen dira. Guztira, dozena bat izan ohi dira. Beste zinta-dantzetan bezala, dantzariak -gizonezko nahiz emakumeek- bata bestearekin gurutzatuta ehunduko dituzte zintak. Esku batean zinta eta bestean kastaineta daramatzate dantzariak.

Musikariak *tajaraste* erritmoa markatzen dute. Kasu batzuetan *tajaraste*-tik *isa*-ren erritmo arinagora aldatzen da, eta, horretara, zinten ehuntzea ere arindu egiten da.

Eraiki dantza taldea – Irun (Gipuzkoa)

Eraiki dantza taldea 1978 an sortu zuten Behobiako gazte batzuek. Handik aurrera, taldeak lan handia egin du Euskal Herriko folklorea bizirik mantentzeko.

Gaur egun, taldean 5 urtetik gorako 120 kide ari dira. Zazpi probintzietako dantzak ematen dituzte, eta arbasoek dantza, musika eta jantzien alorrean utzitako oroitzapenari eusten saiatzen dira.

1996an Eraiki dantza taldeko partaideek Bidasoaldeko Nazioarteko Gazteen Folklore Jaialdia antolatzearen beharra ikusi zuten, dantzariak saritzea eta ikasturtean zehar egindako lana zabaltzearen helburuarekin. Horrekin batera, jaialdira kanpoko taldeak gonbidatuta, gazteek munduko kultura ezberdinak ezagutzeko eta errespetatzeko aukera ukan dute.

Duguna dantza taldea – Iruñea (Nafarroa)

Duguna dantza taldea 1949. urtean sortu zen, Iruñeko udalaren gerizpean. Dantza tradizio oparoa du Iruñeak, eta taldearen helburua berau ezagutu eta zabaltzea da.

Dugunako dantzari nagusienek Gipuzkoako zinta-dantza eskainiko dute, txikien taldeko dantzariak berriz, Bizkaiko *domingillue*. Gipuzkoako zinta-dantza Goierriko brokel-dantzaren zikloan uztaiz, makil eta brokelekin egiten diren dantzen sorta berean dantzatzen da. Gipuzkoazko tradizio koreografikoko urratsak eta zinta-dantzen generoko ohiko xingolen gurutzaketak batzen dira zinta-dantza honetan. *Domingillue* berriz, Iurretako gorularien dantza-sortan egiten den zinta-dantza da.

Eltziegoko dantzariak – Eltziego (Araba)

Urtea joan eta urtea etorri, irailaren 8an ematen ditu Arabako Eltziego herriko dantza taldeak bertako dantza ederrak. Plazako Amabirjinaren eguna da. Taldeak ez du herrikoez aparteko beste koreografiarik egiten.

Bertako dantzak honakoak dira: kalejira, Amabirjinaren prozesioan laguntzeko; dantza, Amabirjinaren aurrean egiten diren postu-aldaketa edo trokatuak; *cuatro calles* edo lau kaleetakoa, makila-dantzetan egin ohi direnen antzekoa; jota eta *el árbol*. Azken honek hartzen du balio berezia gure aurtengo jaialdirako, baina bestelako zinta-dantzen aldean, desberdina da: zintak eskegi egin beharko dituzte dantzariak arbolan eta, inguruka-inguruka, halako erreberentzia-jarrera bat erakutsiko dute arbolarekiko.

Kezka dantza taldea – Eibar (Gipuzkoa)

Eibarko Klub Deportiboaren barruan sortu zen Kezka dantza taldea 1958. urtean. Eibarko dantza ospakizunak sendotu eta bultzatzeko lanean dihardu ordutik.


Bizkaiko eta Gipuzkoako zinta-dantza bana egingo du Kezka dantza taldeak. Aurrena Iurretako Gorularien dantzen sortako *domingillue* izenekoa emango du. Ondoren, Gipuzkoako brokel-dantzaren zikloan egiten den zinta-dantza. Eta azkenik, Kezka dantza eskola eta dantza taldeko dantzari guztien artean zinta-dantza handi bat egiten saiatuko dira. Ea korapiloa askatzeko modua aurkitzen duten!

Cortes-eko paloteadoa – Cortes (Nafarroa)

Cortes-eko *paloteadoa* San Migel egunean (irailaren 29an) burutzen den *dance* edo ospakizun bat da. Sei zatik osatzen dute: kortesiak, kalejira, zinta-dantza sentziloa, baltsa, zinta-dantza bikoitza eta jota, beti ere musika bi gaitak eta danbor batek jotzen dutela. Tuterako gaiteroak ditugu lagun.

Ez da ezagutzen *paloteado* honen jatorria, baina 1883ko idatzizko aipamen zaharrenaz geroztik, ia etenaldirik gabe dantzatu da. Antzina gizonezkoek bakarrik egiten zuten dantzan, baina 1950-1960 emakumeak hasi ziren txertatzen.

Arropen historia ere aipagarria da: XIX mendean galdu egin zen jantzion erreferentzia zehatza, baina P. Barandiaran-en lanari esker 1965ean, Frantziako herri txiki baten, antzinako *paloteadore* baten grabatua aurkitzen da. Gerora, 1994an, nesken jantziak estreinatzen dira.



Zinta-dantza San Martzialen (Bergara, Gipuzkoa), 1905. urtean.

Enbor bereko ezpalak

Iruñeko Duguna eta Eibarko Kezka dantza taldeek eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak antolatzen duten Ezpalak jaialdia gai baten inguruan egituratzen da urtero. Hauek dira aurreko urteetako gaiak:

- 2006: Ezpata-dantzak
- 2007: Makila-dantzak
- 2008: Arku-dantzak
- 2009: Karaktere-dantzak
- 2010: Dantza-jauziak
- 2011: Bikoteko dantza soltea
- 2012: Zinta-dantzak

Sei urte hauetan Ingalaterra, Flandria, Frantzia, Portugal, Katalunia, Valentzia, Gaztela, Galizia, Kanariak eta Euskal Herriko dantzak ikusteko aukera eskaini du Ezpalak jaialdiak. Baina euren arteko aldeak baino gehiago, kultura koreografiko horien guztien arteko antzekotasunak nabarmentzeko ahalegina da Ezpalak. Izan ere, folkloreak herrien arteko loturak aspaldikoak direla erakusten digu, eta dantza tradizionalak Europako eskualdeen arteko trukea frogatzeko era hobezina dira.



Zinta-dantza Arraten, (Eibar, Gipuzkoa), XX. mende hasieran.



Kutxa Fototeka

dantza tradizionalen nazioarteko jaialdia
2012ko maiatzak 25, 26 eta 27 BAIONA-IRUÑEA-EIBAR

ANTOLATZAILEAK:



EIBARKO KLUB DEPORTIBOA
KEZKA DANTZA TALDEA



LAGUNTZAILEAK:



24 AVRIL 31 MAI 2012
LES **maimORABLES**
BAYONNE BOUCAU ANGLÈT



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa